



ABALTZISKETA

2016KO ABENDUAREN 15EKO OHIKO BILKURAKO AKTA

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19:00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea

Aritz Garmendia. Zinegotzia

Felix Maioz. Zinegotzia

Adur Gorostidi. Zinegotzia

Jose Maria Egunez. Zinegotzia

Kepa Gorostidi .Zinegotzia

Mikel Semperena.Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

1. 2016-10-13ko Bilkurako akta onartzea hala balegokio.
2. Alkatearen ebazpenen berri ematea.
3. Erein egitasmoari uko egin izana jakinaraztea.
4. Ur kontsorzioaren estatutuak aldatzea onartzea.
5. Udal Sarearen atxikimendua onartzea.
6. 2017ko haserako aurrekontua, plantilla organikoari eta berau osatzen duen dokumentazioari onarpena ematea.
7. 2016/02 zebakia duen kreditu aldaketari onarpena ematea.
8. Udal ondasunen balio eguneratzeari onarpena ematea.
9. Bigarren seilabeteko zabor erreziboen errolda onartzea.
10. Galderak eta eskaerak.



ABALTZISKETA

1- 2016-10-13KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2016-10-13ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartutzat eman da.

2- ALKATEAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Udaleko Alkateak, aurreko Bilkuraren ondoren emandako ebazpenak honako hauek izan dira:

- 2016/57: Ingelesa emateko lokalaren erabilpena baimentzea.
- 2016/58: Goibegiko lokalaren erabilera baimena
- 2016/59: Iraileko fakturen onarpena.
- 2016/60: Mapa toponimikoaren lana 7900 euro ordaintzea.
- 2016/61: eskualdeko udalen artean gizarte zerbitzuak proposatutako idatzia onartzea.
- 2016/62: Urriko fakturen onarpena.
- 2016/63: Makina desbrozadoraren bigarren eta likidazio faktura ordaintzea
- 2016/64: Goierriko ralliesprinterra egiteko baimena onartzea .
- 2016/65: Abenduaren 21ean herriko plaza eskolak erabiltzeko baimena onartzea .
- 2016/66:Goibegiko lokala erabiltzeko baimena onartzea
- 2016/67: 2017ko egutegi fiskala onartzea .
- 2016/68: 2/2016 kreditu aldatetari hasera ematea onartzea
- 2016/69: udalkideen ordainsariak onartzea .
- 2016/70: Ofizioko baja onartzea
- 2016/71: Azaro eta abenduko fakturak onartzea .

Mahaikideek, guztiaren jakinean geratu dira eta ontzat eman dituzte.



ABALTZISKETA

3- EREIN EGITASMOARI UKO EGIN IZANA JAKINARAZTEA.

2016ko Erein egitasmorako ÑAÑARRI ERAIKINEAN, HOTELA, ATERPEA, TABERNA, JATETXEA, HARRERA GUNEA ESKAINTZEKO inbertsioaren diru-laguntza eskaera bideratu zuten, Udalak, laguntza publikoen ildotik eta Ñañarri S.Lren ordezkaria den Alexandra Egunezek, laguntza pribatuen ildotik hain zuzen ere.

Alexandra Egunezek, laguntza eskatu ahal izateko, esleitua izatearen hitzarmena ere aurkeztu behar izan zuen, Udala eta bere artean 2016ko ekainaren 16ean bi alderdiek sinatua.

Laguntzaren nondik norakoak ikusi eta proiektuaren azterketa sakonago bat egitearen beharra ikusita, bi alderdiek, 2016ko azaroaren 15ean laguntzaren eskaerari uko egitea erabaki zuten.

Egoera honen aurrean, Udalak, honako erabakia hartu du:

1. Alkateak aurkeztutako uko egitearen eskaera berronestea.
2. Udalak eta Ñañarri S.L. ren izenean sinatutako hitzarmena, 2016ko ekainaren 16koa indargabe uztea, bi alderdien adostasunarekin.
3. Ñañarri S.L. ren ordezkaria denari jakinaraztea, bere aldetik, dagokion urratsak emateko.

4- UR KONTSORTZIOAREN ESTATUTUAK ALDATZEA ONARTZEA.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Gerenteak, Kontsortzioa arautzen duen estatutuen 3. artikuluko 2. puntuan aldaketa egitearen proposamena luzatu du. 2016ko urriaren 27ko Batzarrean, aldaketaren haserako onarpena eman zuten.

Apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren 23 artikulua arabera, beharrezkoa da Udal kontsortziokideek ere, Osoko Bilkuraren erabakiaren bitartez aipatutako aldaketa onartzea.



ABALTZISKETA

Horregatik, aldaketa egin eta estatutuen 3 artikulua, ondoren agertzen den bezala geratzen da:

3. Artikulua.- Nortasun eta gaitasun juridikoa. Artículo 3º Personalidad y capacidad jurídica

1.- Kontsortzioak nortasun juridiko propioa du eta bere helburuak lortzeko iharduteko gaitasun osoa.

2.- sektore Publikoaren araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 legearen 120 artikuluan ezarritakoaren xedeetarako, Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxekita geratzen da. Foru araudiak atxikipen horren edukia eta norainokoa zehaztuko du.

1.- El Consorcio tiene personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines.

2.- A los efectos de lo dispuesto en el artículo 120 d ela ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del sector Público, el Consorcio queda adscrito a la Diputación Foral de Gipuzkoa. La normativa foral determinará el contenido y alcance de dicha adscripción

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Estatutuen 3. artikuluko 2. puntuaren aldaketa onartzea.
2. Erabakiaren berri ur kontsortzioari jakinaraztea.

5- UDAL SAREAREN ATXIKIMENDUA ONARTZEA.

Euskal Autonomi Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunetikiko konpromisoa berritzeko akordio proposamena eta hitzarmena agertu dira.

Alde batetik, hitzarmenaren edukia ikusi da eta bestetik, atxekipenarako 1.A proposamena.



ABALTZISKETA



Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea
Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
TOKIKO JASANGARRITASUNAREKIKO
KONPROMISOA BERRITZEKO AKORDIOA:
"UDALSAREA 21,
JASANGARRITASUNERAKO UDALERRIEN
EUSKAL SAREA"**

Bilbon, 2016ko apirilaren 27an

Lehen.- 2002ko abenduaren 20an sinatu zuten Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen eratze hitzarmena. Sarea administrazio publikoen arteko koordinazio-foro izateko sortu zen, udal mailan jasangarritasuna sustatu, eta euskal udalerrietan Tokiko Agenda 21 ezartzeko aurrerapausoak emateko, EAEko Ingurumen Esparru Programarekin bat etorritz.

Bigarren.- Udalsarea 21 sendotu, eta Tokiko Agenda 21 udalerrietan ezarri, garatu eta jarraipena egitearekin konprometitutako administrazioen arteko harremanak arautzeko, 2010eko martxoaren 30ean kide gehiagoren borondatezko atxikimendua sustatzeko prozesua abiarazi zen. Horretarako, sareari izaera dinamikoa eman zitzaion, kide guztien parte-hartze aktiboaren bidez, jasangarritasuna xede zela.

Hirugarren.- Aipatutako sendotze-prozesu horretan, jasangarritasunerako konpromisoa bere egin zuten EAEko 203 udalerrik. Horiez gain, honako hauek ere atxiki ziren: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Ingurumen Sailburuordetza, Garraioko Zuzendaritzak eta URAk, Uraren Euskal Agentziak, ordezkak; Ihobe, Kudeaketarako Sozietate Publikoa, Idazkaritza Tekniko gisa; eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Aipatutako konpromisoaren iraunaldia 2015eko abenduaren 31ra artekoa da.

Laugarren.- Aipatutako aurrekari jarraiki, eta tokiko jasangarritasunaren aldeko konpromisoa berritzeko arauketa-esparru berri bat finkatzea beharrezkoa izanik, ondorengo klausulak ezarriko dira, akordioarekin bat egiten duten erakundeek onartuta:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea.

Akordio honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko jasangarritasunarekiko konpromisoa berritzea, "Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea"

**ACUERDO DE RENOVACIÓN DEL
COMPROMISO POR LA SOSTENIBILIDAD
LOCAL EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA
DEL PAÍS VASCO: "UDALSAREA 21, RED
VASCA DE MUNICIPIOS HACIA LA
SOSTENIBILIDAD"**

En Bilbao, 27 de abril de 2016

Primero.- Con fecha 20 de diciembre de 2002 se firmó el convenio de constitución de Udalsarea 21, Red Vasca de Municipios hacia la sostenibilidad. La Red nació con la vocación de constituir un foro de coordinación entre las Administraciones públicas para fomentar la sostenibilidad a nivel municipal avanzando en la implantación de la Agenda Local 21 en los municipios vascos en sintonía con el Programa Marco Ambiental de la CAPV.

Segundo.- A fin de consolidar la Red Udalsarea 21 y regular las relaciones entre las distintas Administraciones comprometidas con la implantación, desarrollo y seguimiento de la Agenda Local 21 en los municipios, con fecha 30 de marzo de 2010 se dio inicio a un proceso para promover la adhesión voluntaria de nuevos miembros, dotando a la Red de un carácter dinámico mediante la participación activa de todos sus componentes, en favor de la sostenibilidad.

Tercero.- En el marco del proceso de consolidación descrito, se adhirieron al compromiso por la sostenibilidad un total de 203 municipios de la CAPV, junto con el Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial de Gobierno Vasco, representado por la Viceconsejería de Medio Ambiente, la Dirección de Transportes, URA Agencia Vasca del Agua, y la Sociedad Pública de Gestión Ihobe, en calidad de Secretaría Técnica y el Departamento de Salud de Gobierno Vasco. La vigencia del citado compromiso finaliza el 31 de diciembre de 2015.

Cuarto. De conformidad con los antecedentes expuestos, y siendo necesario establecer un nuevo marco de regulación que renueve el compromiso por la sostenibilidad local, se establecen las siguientes estipulaciones cuyo contenido aceptan las Instituciones que se adhieran al presente acuerdo:

CLAUSULAS

Primera.- Objeto.

El objeto del presente acuerdo es renovar el Compromiso por la Sostenibilidad Local en la Comunidad Autónoma del País Vasco: "Udalsarea 21, Red Vasca de Municipios hacia



ABALTZISKETA

handitzea, kidetutako administrazioen jarduera-esparruari eta -kopuruari dagokienez.

Sareak jardunean egindako hamalau urteetan, Tokiko Agenda 21 EAEko tokiko jasangarritasuneko politikak kudeatzeko tresna nagusia bihurtu da. Hori dela eta, iritsi da unea jauzi kualitatiboa eman, eta kide guztien inplikazioa eta konpromisoa areagotzeko, Udalsarea 21en bidez Euskadi jasangarritasuneko erreferentzia bihurtu dadin nazioartean.

Halaber, aipatutako sarearen esparru arautzailean aldaketa jakin batzuk egiteko xedea du, ondorengo klausuletan ezarritakoarekin bat etorritz.

Bigarrena.- Udaletxeak ez diren euskal sektore publikoko erakundeen erantzukizunak.

Akordio honetara atxikita, udaletxeak ez diren euskal sektore publikoko erakundeek honako erantzukizun hauek hartu dituzte bere gain:

- Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea hobeto koordinatzeko eta zuzentzeko lankidetzan jardutea, EAEko Ingurumen Plangintzak aipatutako helburu estrategikoen arabera.
- Bestelako eskualdetan hautemandako antzeko proiektuei buruzko informazioa eskaini, Tokiko Agenda 21 ekimenak abiatzeko garaian sortu daitezkeen behar eta erronkei aurre egiteko.
- Udalsarea 21 iritzi-trukerako eta EAEko sektore-politikak kontrastatzeko foroak izatea.
- Sarearentzat edo kide diren udalerrietan tokiko ekintza planak burutzeko, eskualde, estatu edo Europa mailako diru-iturriak lortzeko laguntza eta informazioa eskaintzea.
- Tokiko Agenda 21 ekimenen inguruko informazioaren elkartruke sistematikoa sustatzea (adierazleak, jardunbide egokiak, ingurumen irizpideen arabera udal politika, herritarren parte hartzea eta

la Sostenibilidad", ampliando la red en cuanto a las administraciones miembros en ámbitos de actuación y en número de las mismas.

Los catorce años de andadura de la red han permitido consolidar la Agenda Local 21 como principal instrumento de gestión de las políticas de sostenibilidad local en la CAPV, es por tanto el momento de dar un salto cualitativo y avanzar en el compromiso e implicación de todos los miembros de manera que Udalsarea 21 convierta a Euskadi en referente internacional en materia de sostenibilidad.

Asimismo, constituye su objeto establecer determinadas modificaciones en el marco regulador de la mencionada Red de acuerdo con lo que se determina en las cláusulas siguientes.

Segunda.- Responsabilidades de las entidades pertenecientes al sector público vasco distintas a los Ayuntamientos.

La adhesión al presente acuerdo, por parte de entidades pertenecientes al sector público vasco distintas a los Ayuntamientos, supone la asunción de las siguientes responsabilidades:

- Colaborar para mejorar la coordinación y la dirección de la Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad en sintonía con los objetivos estratégicos señalados en la Planificación Ambiental de la CAPV.
- Proporcionar información de calidad respecto a proyectos similares, previamente identificados, en otros contextos territoriales con el objetivo de dar respuestas a las necesidades y retos planteados en la implantación de Agendas Locales 21.
- Contemplar Udalsarea 21 como foro de opinión y contraste de las políticas sectoriales de la CAPV.
- Facilitar asesoramiento e información sobre la captación de fuentes de financiación regional, estatal y/o europea tanto para la propia Red como para llevar a cabo los planes de acción local de los municipios miembros.
- Promover el intercambio de información mutua y sistemática en el ámbito de las Agendas Locales 21 (indicadores, buenas prácticas, integración de criterios de sostenibilidad en el planeamiento



ABALTZISKETA

komunikazioa, etab.)

- Tresna sinpleak jartzea udalen eskura edo haiek lortzeko bidean jartzea udalak, honela, tokiko ekintza-planak, planen gaineko segimendua, eta tokiko jasangarritasun adierazleen azterketa errazago bete dezaten.
- Udaletxei laguntzea tokiko jasangarritasun-prozesuak ezartzeko, ebaluatzeko eta jarraitzeko.
- Tokiko Agenda 21 ekimenaren arloan eman daitezkeen aurrerapenen berri ematea, hala nola jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen beraren komunikazio eta dibulgazio jarduerak antolatu eta sustatzea.
- Proiektuak Udalsarea 21en esparruan garatzea proposatzea.
- Agiri honekin lotuta egiten diren komunikazioetan Udalsarea 21 aipatuko da erreferentzia gisa.
- Sareko kide izateagatiko urteko 15.000 euroko kuota ordaintzea, tokiko jasangarritasun-politiken lurralde edo sektore mailako aurrerapenak jasotzeko.

Hirugarrena.- Udaletxeen erantzukizunak

Honako akordioa berretsi duten udalek honako erantzukizun hauek izango dituzte:

- Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sareko kide izan eta kide izaten jarraitzea.
- Tokiko Agenda 21 ekimenak burutzen jarraitzea, udalen konpromiso politikoaren eta etengabeko hobetze nahiaren adibide gisa, bai eta udalerriko garapen jasangarria sustatzea ere, proiektu horren arduraduna eta ordezkoa izendatuz.
- Informazioa ematea eta esperientzia interesgarriak partekatzea Udalsarea 21en esparruan.

municipal, participación y comunicación ciudadana, etc.).

- Poner a disposición o facilitar el acceso de los Ayuntamientos a herramientas sencillas que permitan una mejor ejecución y seguimiento de los Planes de Acción Local, así como la revisión de sus Indicadores de Sostenibilidad Local.
- Apoyar a los Ayuntamientos en la consolidación, evaluación y seguimiento de los procesos de sostenibilidad local.
- Apoyar en la comunicación/divulgación de los avances que se vayan realizando en materia de Agenda Local 21, así como crear y promover actividades de comunicación y divulgación de la propia Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad.
- Proponer el desarrollo de proyectos en el marco de Udalsarea 21.
- Incluir en las comunicaciones que se realicen en el marco del presente documento de compromiso la referencia a Udalsarea 21.
- Abonar la cuota anual de pertenencia a la Red por importe de 15.000 euros, en concepto de obtener el avance de las políticas de sostenibilidad local a escala territorial o sectorial.

Tercera.- Responsabilidades Ayuntamientos

La adhesión de los Ayuntamientos al presente acuerdo supondrá la asunción de las siguientes responsabilidades:

- Permanecer y pertenecer a la Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad.
- Avanzar en la implementación de los procesos de la Agenda Local 21, como compromiso político y de mejora continua de cada Ayuntamiento, como contribución al desarrollo sostenible del término municipal, designando un responsable y un suplente para este proyecto.
- Facilitar información y compartir experiencias de interés en el marco de Udalsarea 21.



ABALTZISKETA



Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea
Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad

- Konpromiso honekin lotuta egiten diren komunikazioetan Udalsarea 21 aipatuko da erreferentzia gisa.
- Incluir en las comunicaciones que se realicen en el marco del presente compromiso la referencia a Udalsarea 21.

Laugarrena.- Ihobe, SA, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren erantzukizunak.

Cuarta.- Responsabilidades de la Sociedad Pública de Gestión Ambiental, Ihobe, S.A.

Bigarren klausulan aipatutako erantzukizunak bere gain hartzeaz gain, Ihobe, SA, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak honako erantzukizun hauek hartuko ditu:

Además de asumir las responsabilidades citadas en la cláusula segunda, la Sociedad Pública de Gestión Ambiental, Ihobe, S.A., asumirá las siguientes responsabilidades:

- Udalsarea 21en kudeaketa administratiboa eta laguntza teknikoa.
- Udalsarea 21era kidetutako udaletarako Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak egindako planen edota programen helburuekin lerrokatutako funtsezko esparru interesgarrietan proiektuak garatzea sustatzea.
- Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen web domeinua kudeatzea eta eguneratzea.
- sarea kudeatzeari eta dinamizatzeari loturiko gastuak ordaintzea, ezarritako helburuak betetzeko.
- toda la gestión administrativa y la asistencia técnica de Udalsarea 21
- el fomento del desarrollo de proyectos innovadores en ámbitos de interés claves alineados con los objetivos de los diferentes planes o programas del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco para los municipios miembros de Udalsarea 21.
- la gestión y el mantenimiento actualizado del dominio en Internet correspondiente a la página de la Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad.
- sufragar los gastos asociados a la gestión y dinamización de la red con el fin de cumplir con los objetivos establecidos en la misma.

Bosgarrena.- Sarearen antolaketa-egitura

Quinta.- Estructura organizativa de la Red

Udalsarea 21en antolaketa-egitura honako hau izango da:

La estructura organizativa de la Red Udalsarea 21 estará constituida por:

1.- Batzorde Betearazlea:

1.- Comité Ejecutivo:

Batzorde Betearazlean ordezkari bana izango dute akordio-agiri honi atxikitako erakundeek.

El Comité Ejecutivo estará compuesto por un representante de cada una de las entidades que se adhieran al presente documento de Acuerdo:

Batzorde Betearazlearen presidentetza Eusko Jaurlaritzako ingurumen arloko sail eskudunaren buruari egokituko zaio.

La Presidencia del Comité Ejecutivo será el o la titular del Departamento con competencias en materia de medio ambiente del Gobierno Vasco.

Ondorengoak izango dira Batzorde Betearazlearen funtzioak:

Serán funciones del citado Comité Ejecutivo las siguientes:

- Sarea bultzatzea eta bere buruzagitza politikoa lortzea,
- sareak gauzatutako jardueren segimendua egitea,
- el impulso y liderazgo político de la Red,
- el seguimiento de las actividades desarrolladas por la misma,



ABALTZISKETA



Jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea *Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad*

- plan estrategikoak, kudeaketa planak eta arautu beharreko gainerako alderdiak onartzea.

Batzorde Beteazlearen eraketa eta funtzionamendua arautu ahalko du akordioa sinatu ostean onartu beharko den jardunbideak.

Urtean behin bilduko da Batzorde Beteazlea.

Alderdi guztiei eragiten dieten ingurumeneko erronka berriei aurre egin, eta akordioak onartzeko eragingarritasuna bideratzeko, Batzorde Beteazleak Gaikako Batzordeak sortu ahalko ditu, Batzorde Beteazleak esleitzen dizkien gaiak lan ditzaten.

Ihobe, SA, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, sarearen Idazkaritza Teknikoa den aldetik, Gaikako Batzorde guztietan hartuko du parte.

2.- Batzorde Teknikoa:

Batzorde Teknikoa lantalde iraunkorra izango da. Bina ordezkari izango dituzte agiri honi atxikitako erakundeek (titularra eta ordezkoa). Sarearen jardueren eta zerbitzuen berri emateko foro nagusia izango da, Batzordeak berak, eragingarritasuna bermatzeko, hainbat lantalde eratzeari utzi gabe.

Ondorengoak izango dira batzordearen funtzioak:

- esperientzia eta informazio baliotsuen trukea sustatzea,
- profil desberdineko udalen arteko komunikazioa sustatzea,
- berriazko lantaldeak sortzea, Sarearentzako materialak eta baliabide komunak garatzeko,
- Sarearen plan estrategikoak eta kudeaketa-planak diseinatzea.

3.- Idazkaritza Teknikoa:

Ihobe, SA, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren esku egongo da Udalsarea 21en Idazkaritza Teknikoa.

Honako eginkizun hauek izango ditu Idazkaritza Teknikoak:

- bilerak koordinatzea, parte-hartzaileei deialdia helaraztea, sarea kudeatzeko administrazio- eta ekonomia-lanak egitea,
- Batzorde Teknikotik nahiz Beteazletik eratorritako talde-lana galdatzen duten koordinazio-lanez arduratzea,
- Sarean babespeko zerbitzuak ematea,

- la aprobación de los Planes estratégicos, Planes de gestión y otros aspectos que sea preciso regular.

La constitución y funcionamiento de este Comité Ejecutivo se podrá regir por un procedimiento a aprobar con posterioridad a la firma de este Acuerdo.

Las reuniones de este Comité Ejecutivo tendrán carácter anual.

Al objeto de afrontar los nuevos retos ambientales de alcance temático global y permitir la operatividad en la adopción de acuerdos, el Comité Ejecutivo podrá crear diferentes Comisiones Temáticas en relación con los asuntos que dicho Comité Ejecutivo le asigne.

La Sociedad Pública de Gestión Ambiental, Ihobe, S.A., en calidad de Secretaría Técnica de la Red, formará siempre parte de las Comisiones Temáticas que se creen.

2.- Comité Técnico:

El Comité Técnico se constituye en un grupo de trabajo permanente conformado por hasta dos representantes de cada entidad adherida al presente documento, es el principal foro de comunicación de actividades y servicios de la Red, sin perjuicio de que el propio Comité decida establecer varios grupos de trabajo para garantizar la operatividad del mismo.

Serán funciones del citado Comité las siguientes:

- promover el intercambio de experiencias y de información de valor,
- fomentar la comunicación entre distintos perfiles de Ayuntamientos,
- crear grupos de trabajo específicos para el desarrollo de materiales y recursos comunes de la Red,
- y diseñar los planes estratégicos y de gestión de la Red.

3.- Secretaría Técnica:

La Secretaría Técnica de Udalsarea 21 corresponde a la Sociedad Pública de Gestión Ambiental, Ihobe, S.A.

Serán funciones de la Secretaría Técnica:

- coordinar las reuniones, convocar a los/as asistentes, realizar las labores administrativas y económicas derivadas de la gestión de la Red,
- realizar todas aquellas labores de coordinación que impliquen el trabajo en grupo derivadas tanto del Comité Técnico como de la Asamblea General,
- prestación de los servicios



ABALTZISKETA

I-A ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOA BERRITZEKO AKORDIOAREN ATXIKIMENDUA; "UDALSAREA 21 JASANGARRITASUNERAKO UDALERRIEN EUSKAL SAREA"

.....(e)ko Udalak jasangarritasun prozesuen aldeko konpromisoa azaldu du, Udala Tokiko Agenda 21 ezarriz.

Hala, tokiko konpromisoaren bidez jasangarritasun globalaren alde egiteko etengabeko hobekuntza-prozesua jarri du abian. Eginkizun horretan, udaletako Tokiko Agenda 21ak indartzea helburu duen Sareko kide izateak dakartzan onurak azpimarratzen ditu Udalak.

Horrenbestez,(e)ko Udalak, 201...koren(e)an, Euskal Autonomia Erkidegoaren jasangarritasunaren aldeko «Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea» Konpromisoa berritzeako Akordioa, 2016ko apirilaren 27an onartutakoa, berrestea HITZARTU du.

Aurrez adierazitakoarekin bat,
.....(e)ko Udalak
ADIERAZTEN DU:

“2016ko apirilaren 27an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunerako Konpromisoa berritzeako Akordioa ”Udalsarea 21 Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea” dokumentuari atxikimendua agertzen diola eta bere gain hartzen dituela akordio horretatik eratorritako erantzukizunak”.

eta izendatzen du: (*)

-
(Alkatea), arduradun politikoa eta ordezkarri moduan.
- arduradun teknikoa.

(*) Izen-abizenak, helbide elektronikoa

20.....(e)ko,(a)ren(e)an/20....., de de 20.....

ANEXO I-A.

ADHESIÓN AL ACUERDO DE RENOVACIÓN DEL COMPROMISO POR LA SOSTENIBILIDAD LOCAL EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO: "UDALSAREA 21, RED VASCA DE MUNICIPIOS HACIA LA SOSTENIBILIDAD"

El Ayuntamiento de..... está comprometido con los procesos de sostenibilidad local a través de la implantación de la Agenda Local 21.

Esta implantación es un proceso de mejora continua a favor de la sostenibilidad global desde el compromiso local. Y en este empeño, el Ayuntamiento destaca los beneficios de la pertenencia a una Red cuyo objetivo es el fortalecimiento de las Agendas Locales 21 municipales.

Y es por ello que el Ayuntamiento de..... ACUERDA con fecha de de 201... ratificar el Acuerdo de Renovación del Compromiso por la Sostenibilidad Local en la Comunidad Autónoma del País Vasco "Udalsarea 21, Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad", aprobado el 27 de abril de 2016.

En virtud de lo expuesto con anterioridad, el Ayto. deDECLARA:

“su adhesión al Acuerdo de Renovación del Compromiso por la Sostenibilidad Local en la Comunidad Autónoma del País Vasco “Udalsarea 21, Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad” aprobado el 27 de abril de 2016, asumiendo con esta firma los compromisos municipales que de él se derivan”.

y designa: (*)

-
(Alcalde/sa), responsable político y suplente del mismo.
-
responsable técnico

(*) Nombre, apellidos, correo electrónico



ABALTZISKETA

Izpta.: /Fdo.:
Ayto. de(e)ko Udala

Abaltzisketako udalak AHO BATEZ ERABAKI DU :

- 1.-Abaltzisketako Udalak, Euskal Autonomia Erkidegoaren jasangarritasunaren aldeko «Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea» Konpromisoa berritzeko Akordioa, 2016ko apirilaren 27an onartutakoa, berrestea HITZARTU du.
- 2.-“2016ko apirilaren 27an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunerako Konpromisoa berritzeko Akordioa ”Udalsarea 21 Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea” dokumentuari atxikimendua agertzen diola eta bere gain hartzen dituela akordio horretatik eratorritako erantzukizunak”.

6- 2017KO HASERAKO AURREKONTUA, PLANTILLA ORGANIKOA ETA BERAU OSATZEN DUEN DOKUMENTAZIOARI ONARPENA EMATEA.

2017 urterako, Abaltzisketako Udalak izango duen aurrekontua aurkeztu da onarpena emateko. Eta aldi berean, Abaltzisketako udaleko plantilla ere aurkeztu da, berau, aurreko urteetako berdina izanik.

2017KO EKITALDIA

GASTUEN EGOERA

<u>Kapitulua</u>	<u>Azalpena</u>	<u>Euroak</u>
1	Pertsonalaren lansariak	156.963,00
2	Gastu korront.eta zerb. Gastuak	93.530,00
3	Gastu Finantzieroa	100,00
4	Transferentzi korrontea	49.500,00
6	Inbertsio errealak	95.243,00
7	Kapital transferentziak	5.500,00
9	Pasibo finantzieroa	3.670,00



ABALTZISKETA

Guztira 404.506,00

SARREREN EGOERA

<u>Kapitulua</u>	<u>Azalpena</u>	<u>Euroak</u>
1	Zerga zuzenak	51.950,00
2	Zeharkako zergak	5.000,00
3	Tasak eta beste sarrerak	29.790,00
4	Transferentzi korronteak	306.056,00
5	Ondare Sarrerak	9.910,00
7	Kapital Transferentziak	1.800,00
<u>Guztira</u>		<u>404.506,00</u>

2017 urteko aurrekontuari dagokion egonkortasun eta iraunkortasun legea betetzearen txostena idazkariak luzatu du:

2017 urteko aurrekontuari dagokion egonkortasun eta iraunkortasun legea betetzearen txostena idazkariak luzatu du:

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren akordioa, 2014ko azaroaren 18koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: 2017ko Aurrekontua

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1- ENTITATE ZERRENDA:

ABALTZISKETA



ABALTZISKETA

2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 3.670,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapitulueta sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapitulueta gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2017rako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2017rako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2017ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2016ean likidatutako sarrera arrunten % 0,00 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2016eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 276ko aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2017rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2017rako ezarritako helburua magnitude hori %77,00 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2017rako helburua.

Gastuaren araua

2016eko behin betiko aurrekontua eta 2017ko ekitaldiko haserako aurrekontuaren artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 1,58 da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:



ABALTZISKETA

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	2016eko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	482.635,40
a2	SEC doiketak ¹	0,00
a3	2015eko interesak	600,00
a4	Beste entitateei ordaindutako transferentziak (434.01)	1.500,00
a5	Finantzaketa lotua duen gastua 2016ean	117.969,40
a=a1+a2-a3-a4-a5	2016eko gastu konputagarria	364.066,40
b1	2017ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	400.836,00
b2	SEC doiketak ²	0,00
b3	2016ko interesak	100,00
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016an	29.400,00
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina	0,00
B6	Beste entitateei ordaindutako trans.(434.01)	1500,00
b=b1+b2-b3-b4-b5-b6	2017ko gastu konputagarria	369.836,00
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)	1,58%

2017rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % 2,10 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek betetzen du 2017rako gastuaren araua.

3- ONDORIOAK

2017 urteko aurrekontuak aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastua araua betetzen ditu .

2017KO PLANTILLA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

Lanpostuaren izena	Lanpost.kop.	Taldea 6/89 Legea 43 art.	Egoera
Izaera Nazionaleko gaikuntza eskala		A	

¹ Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.

² Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.



ABALTZISKETA

Idazkari Kontuhartzailea	1		Jabetzan
--------------------------	---	--	----------

**PERTSONAL LABORALENTZAKO GORDETAKO
LANPOSTUAK**

Lanpostuaren izena	Lanpost.kop.	Taldea 6/89 Legea 43 art.	Egoera
<u>Administrazio Orokorra eskala</u>			
Administrari Laguntzailea	1	C2	Finkoa
Gizarte Langilea	1	B	Behin Behinekoa
Administrari Laguntzailea	1	C2	Behin behinekoa
<u>Administrazio bereziko eskala</u>			
Eginkizun anitzetako langil.	1	D	Finkoa
Etxez etxeko langilea	1	E	Behin behinekoa



ABALTZISKETA

2017KO LANPOSTUEN ZERRENDA

Karrerako funtzionarioei erreserbatutako lanpostuak

Ord. Zk.	Izena	Lanp. Kop.	Taldea	Hornitze. era	Ordainketa osag.		Dedik.	Buleg.	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak					
					Dest. Osakin. maila	Osaga- rri espez.			Adskripzioa			Hizkuntza eskakiz.		
									Talde Eskal.	Azpi- eskala	Klas	Koe- fizie.	Agind. data	Exij. Titul.
1	Idazkari Kontuhartzail	1	A	L	18	7.095,06	%40	ID	HN	IK	3	4	96-06-30	Dip.

Pertsonal laboralentzako gordetako lanpostuak

Ord. Zk.	Izena	Lanp. Kop.	Taldea	Hornitze. era	Ordainketa osag.		Dedik.	Buleg.	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak					
					Dest. Osakin. maila	Osaga- rri espez.			Adskripzioa			Hizkuntza eskakiz.		
									Talde Eskal.	Azpi- eskala	Klas	Koe- fizie.	Agind. data	Exij. Titul.
2	Administrari Laguntzailea	1	C2		13	10.244,92	%55	Ad.				3	96-06-30	FP1
3	Eginkizun Anitz.langil.	1	D		11	16.780,82	%100	Ad.				2	96-01-01	Grad Esko



Behin behineko pertsonal laboralentzako gordetako lanpostuak

Ord. Zk.	Izena	Lanp. Kop.	Taldea	Hornitze. era	Ordainketa osag.		Dedik.	Buleg.	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak					
					Dest. Osakin. maila	Osaga- rri espez.			Adskripzioa			Hizkuntza eskakiz.		
									Talde Eskal.	Azpi- eskala	Klas	Koe- fizie.	Agind. data	Exij. Titul.
4	Etxez etxeko langilea	1	E		8	13.096,44	%100	Ad.				2	96-01-01	Grad Esko
5	Gizarte Langilea	1	B		14	1.316,56	%8,9	Ad.				3	07-11-05	Dip.
6	Administrari laguntzailea zerbitzu sozialetan	1	C2		9	638,40	%4,4	Ad.				3	96-05-01	FP1

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

1- 2017 ekitaldiko aurrekontuaren espedienteari hasera onarpena ematea. Udal Erregimenari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legeko 112.3 artikuluan, Udal Entitateen Aurrekontuari buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Araueko 15.1 artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontuaren Araudia onartzen duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuko 19.1 artikuluan ezarritakoa betez. Eta bide batez , udaleko plantilla organikoari ere haserako onarpena ematea.



ABALTZISKETA

2- FAko 17.1 artikuluan eta eta FDko 21.1 artikuluan aipatutako interesatuek Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatuta hamabost egunetako epean alegazioak tarteratu daitezke.

3- Jendaurreko epea iragan eta legaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartua emango da, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

7- 2016/02 ZEBAKIA DUEN KREDITU ALDAKETARI ONARPENA EMATEA.

Alkate dekretu bidez hasera eman zitzaion, 2016/01 kreditu aldaketa espedientearen berri eman da. bertan jasotako zenbait ordainketa aurrera eramateko ezinbestekoa dute kreditu aldaketa honi onarpena ematea, batez ere inbertsio atalei dagokionez.

Horregatik, Alkateak proposatzen du, gai zerrenda egon ez arren, hasera eman zaiola jakinaren gainean egonik, bertan agertzen den edukiari onarpena ematea.

Mahaikideen aldetik, gaia tratatu eta eztabaidatzeren alde agertu dira guztiak.

2016/02 kreditu aldaketaren espedienteak, kredituz hornitu beharreko partidak honako hauek ikusi dira:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:



ABALTZISKETA

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.120.920.00.01 2016	FUNTZION. LANS.ADMINISTRAZ.OROKORRA	19.665,09	464,28	20.129,37
1 0000.130.153.40.01 2016	LANGILE FINKOEN LANS. OBRETAKO BRIGADA	32.695,70	545,59	33.241,29
1 0000.131.231.10.01 2016	BEHIN BEH.LANGILEEN LANS..ETXEZ ETXEKO	22.110,66	1.370,44	23.481,10
1 0000.221.165.00.01 2016	ELEKTRIZITATEA: KALEKO ARGIKETA	6.000,00	147,00	6.147,00
1 0000.422.431.40.01 2016	BESTE ENTIT.EKARP: TOLOSALDEKO HILTEGIA	154,00	211,00	365,00
1 0000.422.943.00.01 2016	B.ENTI.PUBLIK:IKT-KO LANGILEEN GASTU	1.500,00	330,00	1.830,00
1 0000.629.153.10.01 2016	BEST. INBERTSI.: IRISG.BARANDILLAK	7.184,98	459,80	7.644,78
1 0000.623.933.00.01 2016	OSTATUKO MAKINAR:UR BERO- KALDERA BERRIA	0,00	4.537,50	4.537,50
1 0000.221.333.00.04 2016	GASOLEOA ETA PELETA. GOIBEGI ETA KULTURE	1.400,00	780,00	2.180,00
1 0000.221.920.00.01 2016	ELEKTRIZITATEA: UDAL BULEGOAK	1.000,00	1.700,00	2.700,00
1 0000.623.153.40.04 2016	ZERB.FUNTZ.OND.GASTUAK: TRESNERIA	0,00	22,00	22,00
GUZTIRA		91.710,43	10.567,61	102.278,04

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
------	---------	----------	------------



ABALTZISKETA

c	2 0000.710.312.00.04 2016	EAE-KO KAPITAL TRANS.:OSAKIDETZA	2.500,00
c	2 0000.710.323.00.08 2016	EAE-KO KAPIT.TRANSFER:ESKOLAKO OBRAK	6.260,00
c	2 0000.540.933.00.01 2016	HIRILUR IZAEREN ARRENDAMENDUA	1.807,61
FINANTZAKETA GUZTIRA			10.567,61

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren akordioa, 2014ko azaroaren 18koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: Kreditu aldaketaren onarpena

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1- ENTITATE ZERRENDIA:

ABALTZISKETA



ABALTZISKETA

2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Kredituen aldaketa espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 8.910,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2016rako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2016rako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2016ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2015an likidatutako sarrera arrunten % 0,88 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2015ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016ko aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2016rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2016rako ezarritako helburua magnitude hori % 80,00 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2016rako helburua.

Gastuaren araua

2015ko eta 2016ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 20,76 da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:



ABALTZISKETA

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	2015ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	401.496,07
a2	SEC doiketak ³	0,00
a3	2015ko interesak	889,29
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2015an	98.870,08
a=a1+a2-a3-a4	2015ko gastu konputagarria	301.736,70
b1	2016ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	491.703,01
b2	SEC doiketak ⁴	0,00
b3	2016ko interesak	600,00
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016an	126.729,40
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketan eragina	0,00
b=b1+b2-b3-b4-b5	2016ko gastu konputagarria	364.373,61
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)	% 20,76

2016rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % 1,80 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2016rako gastuaren araua.

3- ONDORIOAK

Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2016rako gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2016rako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.

ABALTZISKETA, 2016ko azaroaren 25ean
Idazkari kontu-hartzailea

³ Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.

⁴ Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.



KONTU-HARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA

Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, Udal honek ez du betetzen 2015rako aurrekontuaren egonkortasun eta gastu araua. Beraz, Udal hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2015erako ezarritako zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren akordioak, 2013ko otsailaren 8ko eta 2014ko azaroaren 17ko jarraibidearen 3. Erregelari ezarritakoari jarraituz, kontu-hartzaile honek berriazko txosten hau egin behar du eta batzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Dena den, Kreditu Aldaketa espedienteak honako finantziakzioa du:

c	2 0000.710.312.00.04 2016	EAE-KO KAPITAL TRANS.:OSAKIDETZA	2.500,00
c	2 0000.710.323.00.08 2016	EAE-KO KAPIT.TRANSFER:ESKOLAKO OBRAK	6.260,00



ABALTZISKETA

c	2 0000.540.933.00.01 2016	HIRILUR IZAEREN ARRENDAMENDUA	1.807,61
---	---------------------------	----------------------------------	----------

Eta argi eta garbi ikusten da Kreditu gehigarrien espediente honek ez duela Udal honen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

Abaltzisketan, 2016ko azaroaren 25ean.

KONTUHARTZAILEAK

Mahaikideek, aho batez **ERABAKI DUTE:**

Lehen.- 2016/02 zenbakia duen kreditu aldaketari behin behineko onarpena ematea.

Bigarrena.- Udal Erregimenari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legeko 112.3 artikuluan, Udal Entitateen Aurrekontuari buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Araueko 15.1 artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontuaren Araudia onartzen duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuko 19.1 artikuluan ezarritakoa betez, hamabost egunetan jendaurrean jartzea, dagokionak bere alegazioak tarteratu ditzan.

Hirugarrena.- Jendaurreko epealdia iragan eta alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta ematea, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

8- UDAL ONDASUNEN BALIO EGUNERATZEARI ONARPENA EMATEA.

Udal honetan, 2009an egin zen inbentarioari onarpena eman zitzaion 2014ko otsailaren 11ean, eta tarteratu ziren alegazioari erantzunez.

Inbentarioaren dokumentuan, ondasun bakoitzaren finta, eta argazkiak jasotzen dira baina, bertan ez zen ondasunaren baliorik jasotzen.



ABALTZISKETA

Udaleko ondare patrimonialaren kontuak, inbentarioko ondasunen balioarekin bat etortzeko asmoarekin, inbentarioaren gainbegiraketa egin eta balioak jarri dira.

Horretarako, udal ondasunen zerrenda jarraituaz, laburpen bat egin da, eta espedienteari eransten zaio (I eranskina). Eta haien balioak era honetara sailkatzen dira, ondare patrimonialean jasotzeko:

1. Higiezinak: 1.249.836,00 €
2. Eskubide errealak: Eskubide errealak: Tolosaldea garatzeko partaidetza (kapitalaren %1,27 61.905€), 787,00 € eta Apatxa Industriegunea (2.892.076ren %0,156) 4.507,00 €
3. Izaera historiko, artistiko edo balio ekonomiko handia duten altzariak:0,00
4. Bestelakoak:
 - a) Balio higigarriak (mobiliarioa): 79.035,65€
 - b) Korporazioaren kredituak eta izaera pertsonaleko eskubideak: 0,00
5. Ibilgailuak: 13.834,46 €
6. Aziendak: 0,00
7. Aurreko epigrafeetan sartuta ez dauden higigarriak: informatika eta ikusentzunak: 62.141,88€
8. Ondasun eta eskubide lehengoragarriak: 0,00

Mahaikideek, erabaki dute:

LEHENENGOA.- Erakunde honi dagokion ondasunen eta eskubideen Inbentarioa onartzea, hurrengo Laburpen orokorra oinarri hartuta:

1. Higiezinak: 1.249.836,00 €



ABALTZISKETA

2. Eskubide errealak: Eskubide errealak: Tolosaldea garatzeneko partaidetza (kapitalaren %1,27 61.905€), 787,00 € eta Apatxa Industriegunea (2.892.076ren %0,156) 4.507,00 €
3. Izaera historiko, artistiko edo balio ekonomiko handia duten altzariak: 0,00
4. Bestelakoak:
 - a) Balio higigarriak (mobiliarioa): 79.035,65€
 - b) Korporazioaren kredituak eta izaera pertsonaleko eskubideak: 0,00
5. Ibilgailuak: 13.834,46 €
6. Aziendak: 0,00
7. Aurreko epigrafeetan sartuta ez dauden higigarriak: informatika eta ikusentzunak: 62.141,88€
8. Ondasun eta eskubide lehengoragarriak: 0,00

BIGARRENA.- Horren kopia Estatuko eta Autonomia Erkidegoko Administrazioei bidali dakiela.

9- BIGARREN SEILABETEKO ZABOR ERREZIBOEN ERROLDA ONARTZEA.

2016ko 2. sei hilabeteko zabor bilketa eroldari onarpena emateko proposamena mahairatzen da, ondoren, tasak kobratu ahal izateko.

Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araugintza Erregelamenduaren 41.18 artikulua betetzearren, 2016-01 zabor bilketa errola onartu ondoren, errola hori jendearen agerian jarri behar da uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Arautzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian agindutakoa betez. Halaber borondatez ordaintzeko epearen eta eraren berri ematen da, apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Herrialde Historikoko Zerga bilketa Erregelamendua onartzekoak, 78. artikulua eskatu bezala.



ABALTZISKETA

Jendaurreko epea, hilabetekoa izango da, dagokionak erreklamazioak aurkezteko. Epea iragan eta alegaziorik ezean, dagoen bezala onartutzat emango da, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

Ordaintzeko epea, borondatezkoa, 2017ko urtarrilaren 2tik otsailaren 28 arte.

Aipatutako epean zorrak ordaintzen ez badira, prozedura exekutibotik eskatuko dira eta horiei premiamenduzko erreklamoak, berandutza interesak, eta sor daitezkeen kostuak gehituko zaizkie.

Mahaikidek **ERABAKI DUTE:**

2016-02 zabor bilketa erroldari onarpena ematea.

10- GALDERAK ETA ESKAERAK

BAT.- HERRIKO EMAKUMEEN LAGUNTZA ESKAERA PILATES EGITEAGATIK

Herriko emakume talde batek, pilates ikastaroa herrian burutzen dutela eta azken urte hauetan inolako laguntzarik jaso ez dutenez, beraiek ordaintzen duten hilekoa arintzeko laguntzarik izango den galdetzen dutela jakitera eman da.

Mahaikideek eskaeraren berri jakin ondoren, beraien iritziak agertu dituzte. Hilekoaren kostua zenbatekoa den galdetu dute eta 30,00 eurotako dela adierazi da, idatzian auzeratu ez bazen ere, ahoz horrela adierazi zutelako.

Udalerrian beste hainbat ikastaro ere burutzen direla, haur, guraso, heldu, e.a.ek antolatuak, baina Udalak ez duela laguntza ekonomikorik ematen.

Abaltzisketako Udalarentzako garrantzizkoena, baliabideak jartzea da eta talde bakoitzak bere dinamika sustatzea. Horretarako, Udalak orain arte bezala, herriko talde hauei, ikastaroak burutzeko honako laguntza eskaintzen jarraitzea erabaki du:



ABALTZISKETA

- Lokalaren erabilera bermatzea.
- Lokalaren argia, berogailua eta garbitasuna Udalaren gain.

BI.- LARRAITZKO ITZALAREN INGURUAN IZANDAKO BILERAREN BERRI EMATEA.

Alkateak, Tolomendi Elkarteko Gerentearekin eta Tolosaldea Garatzeneko turismoaren arduradunarekin bilera izan duela azaldu du.

Bileraren gai nagusia, Larraitzko itzala proiektua eta berarekin batera, turismo gunea izan dira. Larraitzko parkearen hustiatzaileak haserrea agertzen dutela, beraien iritzian Udalak agertzen duen harrerarekin.

Egoerari irtenbidea eman nahian bildu dira, eta gaiarekin jarraitzeko geratu direla.

HIRU .- GIZARTE LANGILEAREN DEDIKAZIO ESKAERA

Alkateak adierazten du, gizarte langileak txosten bat eskuratu diola eta dedikazio eskaera handitzea adierazten duen arrazoiak ere agertu dituela.

Gai zerrendan gaia ez bazegoen ere, gutxienez hasera eman eta zerbait eztabaidatzea eskatu du.

Mahaikideen aldetik hitz egiteko arazorik ez da ikusten. Eskaeraren inguruan oso informazio gutxi dagoela ere ikusten da, legea aspaldikoa bada ere bere garapena oraintxe ezagutzera eman dela, eta nondik norakoak izango diren ez direla ezagutzen.

Beste herrietan langileak duen dedikazioaren berri jakitea ere komeni dela esan da.

Azkenik, hitzegin bada ere, aurrerago erabakia hartzeko geratu da.



ABALTZISKETA

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen Alkateak, gaueko 21:30etan.

Alkateak

Idazkariak